

BEKAK 2023/2024

1.- HEZKUNTZA SAILEKO BEKAK

1.1.- Hezkuntza Saileko bekak eskatzea

Hezkuntza Sailak 2023-24 ikasturteko beken deialdia zabaldu du. Beka BERRIAK eta aurreko urtean UKATUAK izan zirenak ikastolako administrazioan eskatu behar dituzue. Berriztatzaileen bekak (lehenko urtean ONARTUAK izan zirenak soilik), aldiz, online egitea lehenesten da (berriztatzaileek beste ohar pertsonal bat jasoko duzue ikaslearen bitartez).

1.2.- Laguntza motak

- A) Jantokirako laguntzak (gehienezko zenbatekoa): 818,80€
Ikastolako jantokian ALTA emandako egunak soilik jakinaraziko ditugu Hezkuntza Sailean.
- B) Material didaktikorako laguntza:
 - * **HH:** 78,00€
 - * **LH eta Hezkuntza Berezia:** 117,00€
 - * **DBH:** 159,00€

1.3.- Baldintza ekonomikoak (2022)

Material didaktikorako laguntzen eta jantokiko laguntzen taula, senideen eta gehienezko irabazien arabera.

Gainditu behar ez diren 2022ko IRABAZI GARBIAK =
Zerga oinarri orokorra + aurrezpenaren oinarri likidagarria – kuota likidoa

Familiako senide kopurua	MATERIALA: Lehen Hezkuntza eta DBH	MATERIALA: Haur Hezkuntza JANTOKIA: HH, LH eta DBH
1	14.826 euro	11.937 euro
2	25.308 euro	19.444 euro
3	34.352 euro	25.534 euro
4	40.796 euro	30.287 euro
5	45.598 euro	34.370 euro

Aplika daitezkeen kenkariak (agiriekin justifikatu beharrekoak)

- Guraso bakarren kasuetan, 500€.
- 525€ etxe berean bizi diren seme/alabako, eskatzailea barne, maila orokorreko familia ugaria bada. Eta 800€ maila bereziko familia ugarien kasuetan.



- ❑ Ezintasunak: 1.811€ %33 eta %65 artekoa denean; 2.881€ %65a baino gehiago denean.
- ❑ 1.176€ etxetik kanpo unibertsitate ikasketak egiten ari den seme/alaba bakoitzeko.

1.4.- Aurkeztu beharreko agiriak

- **Guraso bananduak edo guraso bakarrak:** banatu ondorengo epaia edo hitzarmen erregulatzaila eta elikagaietarako pentsioen ziurtagiria.
- **Ikaslearekin bizi diren aiton-amonak:** udal bizikidetza errolda ziurtagiria.
- **Errenta Aitorpena egin behar ez dutenak:** 2022. urtean lortutako diru sarrerren ziurtagiria.
- **Jabetzen kontribuzio erreziboak** (ohiko etxebizitzarena izan ezik).
- **IBAN zenbakia.**

1.5.- Eskaerak ikastolan aurkezteko epea

KONTSULTAK EGITEKO eta ESKAERAK AURKEZTEKO EGUNAK:
IRAILAREN 11tik IRAILAREN 22ra
08:30etik 13:00etara eta 14:30etik 17:30era

2.- IKASTOLAKO BEKAK

Haurtzaro Ikastolak, bere sorreratik, komunitatearen barruko elkartasun irizpidea izan du proiektua aurrera eraman ahal izateko aldarria. Espiritu hori mantentzen du gaur egun ere, horregatik, ikastolak baditu bere beka propioak ere.

Beka arautegiak atal hauek hartzen ditu kontuan:

- Kuotak ordaintzeko zailtasunak dituzten familiak: kuota finkoaren planteamendua.
- Irakaskuntza kuotak murriztea.
- Gastu guztien beka.
- Egoera berezian dauden familien kasuak.

Aipatu behar dugu, kasu guztietan, Hezkuntza Sailaren beken osagarri direla eta familia bakoitzaren errenta mailaren arabera banatzen ditugula, uneko egoerak ere kontuan hartuta. Salbuespenak ere aztertzen ditugu.

Kontseilu Errektoreko Beka Batzordeak, ikastolak indarrean duen beka arautegia kontuan hartuta, ikasturteko barruko beka eta laguntza sistema bideratzen ditu. **Haurtzaro Ikastolako proiektuan egoera ekonomiko guztiek dute lekua.**

Beka hauek eskatzeko epea eta ordutegia aurrekoen bera da. Epe honetatik kanpo justifikatuak dauden egoerak aztertuko ditugu.

Ikastolako administraria

